

## 2017ko azken proiektu artistikoak, “Viviendo al día” eta “Orbainak”, Montehermoson aurkeztu dira

**Erakusketa ur-biltegian egongo da ikusgai, bihartik ekainaren 17ra arte, eta “Orbainak”, programako lehen ikus-entzunezko proiektua, gaur emango da, 19:30ean.**

Gaur aurkeztu dira 2017ko proiektu artistikoen arteko azken bi lanak: azken erakusketa, “Viviendo al día”, Belén Cerezorena, eta ikus-entzunezko lehen proiektua —iazko deialdian sortu zen atal hori— “Orbainak”, Jorge Moneorena. Kultura, Hezkuntza eta Kirol zinegotzi Estibaliz Cantok eta egileek hartu dute parte prentsaurrekoan.

“Orbainak” filmak *zauriaren* ideia ikertzen du euskal inkontziente kolektiboan, familia baseritar baten oroitzapenak eta paisaia baliatuz. “*ORBAINAK*” lanak “h” larriz idatzitako Historiari intrahistoriatik begiratzen dio, hau da, memoria pribatutik, etxeko memoriatik eta iragana gordetzeko baliabideetatik, familia argazkiak, besteak beste. Baliabide horietan eta gure paisaia garaikidean denborak eta hondamenak duten efektuaren nolabaiteko kondentsazioa erabiltzen du horretarako. Proiektuan alderdi hauek jo dira interesgarritzat: istorio tragikoa, heroi maskulinoaren sakrifizioa, paisaia mitikoaren eraldaketa, etxe/aberri zauritua, eta abar.

Jorge Moneo Quintana (Vitoria-Gasteiz, 1988) Arte Ederretako lizentziaduna da, Euskal Herriko Unibertsitatetik, eta Dokumental Sortzailearen Teoria eta Praktikari buruzko Masterra eskuratu zuen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. *La ciudad interior* film dokumentalaren zuzendarikidea da; Dokumental Sortzailearen Teoria eta Praktikari buruzko masterrak eta TVE-Espainiako Telebistak batera ekoitzi dute film hori, eta datorren astean Málagaiko Jaialdian aurkeztuko da.

Gaur arratsaldean proiektatuko da, 19:30ean.

*Viviendo el Día* ur-biltegirako berariaz sortutako ikus-entzunezko instalazioa da; gai nagusia txakur talde baten paseoa da, eta zentzumeneren bidez bizitza-munduarekiko berraurkikuntza sustatzeko helburua du. Instalazioko proiektioek —grabazio mota ezberdinak baliatuz eginak— paseoaren esperientzien kontaketa zatitua osatzen dute. Proiektuaren abiapuntua Clarice Lispector idazle brasildarraren narratibak dira, bizitzaren baieztapena baitira. Era berean, egunerokoaren barruan dagoen apartekotasunean sakontzen du haren lanak, eta kategoria binarioen arteko mugak esploratzen, eta instalazio honetan ere garrantzitsuak dira bi ezaugarriok.

*Viviendo el Día* aribidean dagoen arte ikerketa baten zatia da, “gorputzaz filmatzeko” proposamena landu eta “ikusmena ukimenaren bidez birmaterializatu” nahi duena. Lanak ‘bisualtasun haptikoa’ kontzeptua aztertzen du jardun zinematografikoan eta instalazioan, eta horiek berak baliatuz. Zehazki, kameraren begiaren eta filmatutako inguruaren artean

gertatzen den marruskadura afektiboa (karrakatu, igurtzi, ukitu, harraskatu...) ikertzen du, baita publikoaren eta instalazio murgilarazlearen artekoa ere.

Belén Cerezo (Vitoria-Gasteiz, 1977) artista, ikertzailea eta hezitzailea da. Irudien funtzionamenduari erreparatzen dio, eta irudiekiko nolabaiteko “topaketa afektiboa” agerian jartzen. Ikus-entzunezko instalazioak, bideoak, argazkiak, idazkuntza eta aurkezpenak baliatzen ditu bere lana osatzeko.

Belén Cerezok Arte Ederretako doktoretza lortu zuen 2015ean, Nottingham Trent unibertsitatean, eta bertako irakaslea da Argazkigintza Sailean.

Bihar inauguratuko da erakusketa, 20:00etan. Gainera, dokumentazio zentroak Clarece Lispector idazle brasildarraren funtsen erakusketa bat jarriko du, haren lana baita proiektuaren abiapuntua.

## Presentados en Montehermoso “Viviendo al día” y “Orbainak” los últimos proyectos artísticos 2017

**La exposición presidirá el Depósito de Aguas desde mañana hasta el 17 de junio y Orbainak, que se proyecta a las 19:30 de hoy, es el primero de los proyectos audiovisuales del programa**

Hoy se han presentado los dos últimos trabajos de la convocatoria de Proyectos Artísticos 2017, la última de las exposiciones, “Viviendo al Día” de Belén Cerezo y el primero de los proyectos audiovisuales que se crearon en la convocatoria del año pasado, “Orbainak” de Jorge Moneo.

A la rueda de prensa, ha acudido la concejala de Cultura, Educación y Deporte, Estíbaliz Canto, y los autores de las obras.

Orbainak, es una película que explora una idea de *herida* en el inconsciente colectivo vasco, a través de las memorias de una familia baserritarra y el paisaje. *ORBAINAK* mira hacia la Historia (con “h” mayúscula) desde la intrahistoria, es decir, desde la memoria privada, doméstica y sus dispositivos de preservación del pasado como las fotografías familiares. Y lo hace a través de cierta condensación del tiempo y de su efecto de ruina en tales dispositivos y en nuestro paisaje contemporáneo. Algunos aspectos de interés en este proyecto han sido: la historia trágica, el sacrificio del héroe (masculino), la transformación del paisaje mítico, la casa/patria herida, etc.

Su autor, Jorge Moneo Quintana (Vitoria-Gasteiz, 1988) es licenciado en Bellas Artes por la Universidad del País Vasco y Master en Teoría y Práctica del Documental Creativo por la Universidad Autónoma de Barcelona. Jorge Moneo ha sido co-director de la película documental *La ciutat interior*, coproducida por el Máster en Teoría y Práctica del Documental creativo (UAB) y Televisión Española (TVE), trabajo que se mostrará en el Festival de Málaga la próxima semana.

Se presenta esta tarde a las 19:30 horas.

La instalación audiovisual *Viviendo el Día* es una instalación específica para el Depósito de Aguas, que toma como motivo central el paseo de un grupo de perros para generar un reencuentro con el mundo-vida a través de lo sensorial. Las diferentes proyecciones de la instalación componen una narrativa fragmentada de las experiencias de dicho paseo a través de distintos tipos de grabaciones. El punto de partida de este proyecto son las narrativas de la escritora brasileña Clarice Lispector que suponen una afirmación de la vida. Asimismo, su obra insiste en lo extraordinario dentro de lo cotidiano y explora los límites entre categorías binarias, que son características importantes de esta instalación.

*Viviendo el Día* es parte de una investigación artística en curso que explora la proposición de “filmar con el cuerpo” y que busca “rematerializar la visión a través del tacto”. Este trabajo aborda el concepto de ‘visualidad háptica’ en y a través de la práctica cinematográfica y de la instalación. En concreto, esta investigación explora la fricción afectiva (raspar, frotar, tocar, rozar...) que opera entre el ojo de la cámara y su entorno filmado, así como entre el público y la instalación inmersiva.

Belén Cerezo (Vitoria-Gasteiz, 1977) es artista, investigadora y educadora. Su trabajo explora el funcionamiento de las imágenes y hace evidente una forma de ‘encuentro afectivo’ con las imágenes. Su obra toma la forma de instalaciones audiovisuales, videos, fotografías, escritura y presentaciones.

Belén Cerezo es Doctora en Bellas Artes por Nottingham Trent University (2015), donde es profesora en el Departamento de Fotografía.

La inauguración será mañana a las 20 horas. Además, el centro de documentación ofrecerá una muestra de fondos de la escritora brasileña Clarece Lispector que son el punto de partida de proyecto.